

2026 - 2027

CIBOURE
- ZIBURU



Septembre
➤ Décembre

saison
KULTURELLE
denboraldia

EGITARAUA



Abuztuaren 31tik irailaren 9ra

Sortze egonaldia Les Vibrantes konpainiaren
Les petites forces ikuskizunerako

Irailaren 12a, larunbata

Kultura denboraldiaren irekiera

Irailaren 19a, larunbata eta 20a, igandea

Ondarearen Europako Jardunaldiak

Urriaren 3a, larunbata

FestiOrgues – *Classiques en fête !* kontzertua
Elise Rollin-en eskutik

Urriaren 8a, osteguna

La Côte Folle konpainiaren *Parmi les vaches* ikuskizuna

Azaroaren 20a, ostirala

Euskal Herri Musika eta Soinu-tresnak kontzertua
Beltran Laukotea-ren eskutik

Abenduaren 4tik 16ra

Eguberri da Ziburun!

AURKEZPENA



Ziburun, kultura ikuspegiak zabaltzeko gonbidapena da. Harritzeko, beste istorio eta bizitza-bide batzuk deskubritzeko eta mundua bizitzeko modu desberdinak ezagutzeko gonbidapena da.

Irailetik abendura, kultur denboraldiak ahotsa ematen die gure garaia eta garai honen erronka nagusiak zalantzan jartzen dituzten artistei. Dantza, zirkua, musika, txotxongiloak eta ipuin kontaketen bitartez, eskaintza artistikoei memoriaz, transmisioaz, identitateaz, erbesteaz, elkartasunaz, mundu bizidunarekin dugun loturaz eta elkarrekin amets egiteko dugun gaitasunaz hitz egingen digute.

Ikuskizunek, kontzertuek, jai-ekitaldiek eta hurbileko topaketek Ziburuko bizitza markatuko dute, guziak anbizio berarekin: guzientzat eskuragarri diren esperientzia esanguratsuak eskaintzea, non emozioa gure inguruko mundua hobeto ulertzeko modu bihurtzen den.

Kultura topaketetan eta esperientziaz ere eraikitzen delako, Ziburuko hiriak arte, kultura, zientzia eta kiroltan bitartekaritza-ekintzen eta hezkuntza-bideen aldeko konpromisoa mantentzen du. Adin guzietako jendea eskaintzen zaizkien esperientzia partekatu hauek, bizilagunei artistak ezagutzeko, artelanak modu berri batean deskubritzeko, praktikatzeko eta sortzen dituzten galderei buruz eztabaidatzeko aukera ematen die.

Denboraldi honek etapa berri bat markatzen du ere sorkuntza artistikoari emandako babesaren inguruan. Konpainiei egoitza luzeagoak eskainiz eta sorkuntza, transmisioa eta lurraldea batzen dituzten proiektuak garatuz, Ziburuk lanak ezagutzera ematen diren lekua ez ezik, lanak sortzen diren lekua izatearen aldeko konpromisoa ere berresten du.

Ziburu islatzen duen denboraldia: irekia, sentibera eta konprometitua, non kultura deskubritu, partekatu eta elkarrekin sortzen den.

Eneko Aldana-Douat

Ziburuko auzapeza

Emilie Dutoya,

Auzapezordea, Kultura, Ondare eta Elkarte Bizitzaren arduraduna

KULTURA DENBORALDIA^{REN} IREKIERA

Kultur denboraldi bati hasiera ematea, batez ere, elkartzea da. Une atsegin bat partekatzea, jarduera berriak deskubritzea, proposamen artistiko batek harritzea eta gaua musikaren erritmoan luzatzea.

Gau batez, Kirol zelaia gun e biza bihurtzen da, non bizilagunak, elkar teak eta artistak elkartzen diren. Aurkikuntzaz eta emozioz beteriko denboraldi berri baten hasiera elkarrekin ospatzeko gonbidapena.

DOHAINIK €

KIROL ZELAIA

EGITARAUA

17:00-18:00 eta 19:00-20:00

Praktika artistiko tailerrak eta aldi baterako liburutegia

Ziburuko Vol'Arte eta Break'in Studio elkar teekin diziplina desberdinak. Mediatekak eskaintako behin-behineko liburutegiaz ere goza dezakezu: aukera paregabea liburuak arakatzeko, gauza berriak deskubritzeko eta irakurketaren plazerra partekatzeko.

18:00-19:00

Mirage (Un jour de fête) ikuskizuna

Dyptik konpainiak koreografia-sorkuntza indartsu bat eskaintzen dizu espazio publikoaren bihotzean.

19:00-20:00

DJ eta jolasak

La Grande Illusion-en eskutik jai giroan arratsalde atsegina.

**Arratsalde eta gaualdi osoan zehar
Atsedenaldi gozoa hartzeko aukera lekuan
berean dauden janari-kamioiekin:**

- Gabrielle etxea – Olatak eta edariak
- Silkama – Siriako jakiak



Ekitaldiari buruzko
xehetasunak
QR kodea eskantuz

Inprimaketa egunean finkaturiko egitaraua. Ekitaldi batzuk gehituak edo aldatuak izan daitezke.
Egitarau eguneratua linean aurkituko duzu QR kodearen bidez.

2026-2027ko kultur denboraldiari hasiera
emateko lan indartsu eta murgilgarria:

MIRAGE (UN JOUR DE FÊTE) DYPTIK KONPAINIAREN ESKUTIK (Saint-Étienne)

Corputzak elkartzen, erritmoak altxatzen, espazioa zeharkatzen duen energia kolektibo bat. Mirage (Un jour de fête) ikuskizunarekin, Dyptik konpainiak espazio publikoa topaketa eta erresistentzia leku bihurtzen du. Zisjordaniako Balata errefuxiatuen kanpamenduko giroan inspiraturik, hitzik gabeko sorkuntza honek dantza urbanoa eta garaikidea uztartzen ditu erbestearen, zapalkuntzaren, askatasunaren eta itxaropen kolektiboaren gaiak, indarrez eta poesiaz gogorarazteko. Mugimenduaren indarrak eta interpreteen intentsitateak bultzaturik, lan murgilgarri honek dantza hizkuntza unibertsala izan daitekeela gogorarazten digu, munduaren hauskortasuna eta batzen gaituzten oldarrak adierazteko gai dena.

8 URTETIK AURRERAKO PUBLIKO GUZIA



Zuzendaritza artistikoa eta koreografia: Souhail Marchiche eta Mehdi Meghari • Antzezpena: Anabella Piroso, Alexandra Jezouin, Carla Munier, Yohann Daher, Charly Bouges, Camilla Melani, Konh Ming Xiong, Santiago Codon
Gras • Musika sorkuntza: Patrick De Oliveira • Eszenografia: Charles Boinot • Jantziak eta unibertsota bisuala: Julie Cherkh • Produktzioa: Cie Dyptik, HH Producties eta kideak.

"Ecrire pour la rue" baliabidearen barnean, SACDren laguntzarekin eta DGCaren laguntzarekin.
Kaleko arteen sorkuntzarako nazio-laguntza.



ONDAREA^{REN} EUROPAKO JARDUNALDIAK

Ondarearen Europako Jardunaldien kariatara, Ziburuko Herriko Etxeak bere lurraldea modu berri batean ezagutzera gomitatzaz zaitu.

Argazkigintzaren ondarea eta Galzorian den ondarea: berpiztu, iharduki, berriz asmatu gai nazionalekin bat eginez, erakusketa, topaketa, bisita gidatu eta salbuespenezko irekitzeek Ziburuko ondarearen alde anitzak ezagutzeko aukera eskainiko dizute.

Artisten ikuspegiak, itsas memoria, arkitektura, trebetasunak eta usaian publikoarentzat hetsita dauden lekuak, Ziburuko historia eta gaur egun bizia ematen eta transmititzen duten pertsonen historia ikertzeko ate gisa balioko dute.



AOIZan

Sarrera libre eta izena eman gabe

09/17 osteguna 18:30

Zokoko gazteluari buruzko hitzaldia

09/19 larunbata eta 09/20 igandea 10:00etatik 18:00etara

AOIZaren irekitzea

Portuko emazteak eta "Lagun paretak, pilota plazak Ipar Euskal Herrian" / Jean-Jacques Ader argazkilariarekin topaketa ("Lagun paretak" erakusketa)

09/19 larunbata 15:00

Irrati platoa (soinu hatzak) Vents & Marées konpainiarekin

ITSASOKO ONDAREGUNEAK

09/19 larunbata

Bisitak izena emanez

Ur gorako itsasargia eta horren leiarra: 9:30 – 10:30 – 11:30

Zokoko itsasargia (ordutegia zehaztekoa)

Bisita libreak

Ur gorako itsasargia (leiarra ikusi gabe) – 14:00-17:00

Mareografoa – 10:00-12:00 / 14:00-17:00

Ontziola zaharra, egurra moldatzeko eta lurruntzeko erakustaldiarekin (Egurrezkoa elkarte) – Bisita libreak: 9:00-12:30 – 14:00-16:30

// Erakustaldia: 9:00 – 10:30 – 15:00 – 16:30

09/19 larunbata eta 09/20 igandea

Semaforoaren bisitak izena emanez: 10:00-12:00 / 14:00-17:00 (bisitak 30 minutu guziz)

BESTE GUNEAK

09/19 larunbata

Blokeen etxea – Egiategia 11:00etan eta 14:00etan (bisita gidatuak izena emanez)

Bordagain dorrea: bisita libreak 14:30-16:30

09/19 larunbata eta 09/20 igandea

Zokoko gazteluaren bisita gidatuak (ordutegia zehaztekoa)

Ekitaldi guztiak urririk dira

salbu Egiategia

5€ – urririk 16 urtez pekoentzat (dastatzea bane) izena emanez

IZENA EMATEKO

AOIZan edo Donibane Lohizune eta Ziburuko turismo bulegoetan. Arte eta Historia Herrialdeak izena emateko epea jakinaraziko du laster.

FESTIORGUES

CLASSIQUES EN FÊTE!

kontzertua Élise Rollin-en eskutik

Organoa, batez ere, instrumentu baten, leku baten eta artista baten topaketa da.

Élise Rollin organo-jotzaile gazteak, Europako organo ederrenak ezagutzeko eginiko bidaia batean Ziburuko organoa deskubritu zuenean, soinuarekin maitemindu zen. Topaketa horretatik *Classiques en fête!* jaio zen, XVIII. mendeko konpositore handiei eskainitako programa argitsua.

Corrette, Carl Philipp Emanuel Bach, Haydn eta Mozart bata bestearen jarraian datoz kontzertu alai eta dotore batean, San Bixintxoko elizako organo barrokoaren alde guziak goretsiz.

Pantaila handi batean emanen den eta artistaren iruzkinekin osatuko den errezitaldi honek esperientzia murgilgarria eskaintzen du, organo-jotzailearen emanaldia eta bere instrumentuaren aberastasuna hurbiletik erakutsiz

🕒 18:00

📍 San Bixintxo eliza

👤 Publiko guzia

€ Tarifa osoa : 18€
Tarifa murriztua : 14€
Dohainik -18 urte

📄 Erreserbak
www.festiorgues.com
eta Euskal Herriko
Turismo Bulegoetako
leihatiletan



IKUSKIZUNA

PARMI LES VACHES

LA CÔTE FOLLE konpainiaren eskutik (Tolosa - FR)

Zer geratzen da gugandik oroitzapenak ezabatzen direnean? Nola jarrai dezakegu besteei laguntzen haien memoria ahultzen denean?

Benetako istorio batean oinarriturik, La Côte Folle konpainiak zahartzaroa, mendekotasuna eta izakiak batzen dituzten loturak aztertzen dituen zirku-emanaldi sentikor eta hunkigarri bat aurkeztzen du.

Akrobazia eta gorputzen arteko konfiantzaren bidez, Parmi les vaches ikuskizunak zirkuko keinuak zaintza, presentzia eta transmisioaren hizkuntza bihurtzen ditu. Giza hauskortasuna ikuspegi desberdin batetik begiratzera gonbidatzen gaituen emanaldi leuna.

Kultura elkartasunaren
zerbitzura

Emanaldi hau Ziburuko hiriari antolatutako 2026ko Teletoiaren programazioaren parte da. Oraingoan, denak gonbidaturik zaudete libreki parte hartzera, bakoitzak bere baliabideen arabera. Partekatzeke une bat, non kultura elkartasun proiektu handi baten zerbitzura jartzen den.

AFMTELETHON
INNOVER POUR GUÉRIR

Sormena eta antzezpena: La Côte Folle – África Llorens, Maya Peckstadt, Maria Paz Marciano, Elisa Strabioli, Julia Behar Bonnet
Dramaturgia: Georgina Vila Bruch
Ezenografia: Betty Cau
Soinu sorkuntza: Marc Vilajuana
Jantziak: Marnie Langlois
Produktzioa, hedapena: Julia Simon
Administrazioa: Les Thérèses

Frantziako eta Kataluniako hainbat bazkideren laguntzarekin (zerrenda osoa konpainiaren webgunean)

@MartaCardellac



🕒 19:00

📍 Guy Poulou erabilera
anitzeko espazioa

👤 Publiko guzia

€ Parte-hartze librea
erreserbarekin

🗨 Frantsesez

EKO Pyrénées de cirque ekimenaren baitan antolatutako emanaldia; proiektu hori Europar Batasunak kofinantzatu du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren (POCTEFA 2021-2027) bidez.

EKO
PYRÉNÉES
DE CIRQUE
Interreg
POCTEFA
Cofinanciado por
la Unión Europea
Cofinanciado por
l'Unión Europea

KONTZERTUA

EUSKAL HERRI MUSIKA ETA SOINU-TRESNAK

JUAN MARI BELTRAN LAUKOTEAREN ESKUTIK
(Oiantzun)

Zein soinuak azaltzen dute lurralde bat? Zein instrumentuk daramate kultura baten memoria?

Euskal Herri Musika eta Soinu-tresnak ikuskizunarekin, Beltran Laukoteak, euskal musika-ondarearen bihotzera bidaiatzera gonbidatzen gaitu. Musika, soinuak eta musika-tresna tradizionalak uzartzen dituen kontzertu baten bidez, artistek, gaur egun transmititzen eta berrasmatzen jarraitzen duten praktika honen historia, usaia eta bilakaerak aztertzen dituzte.

Munduan gaur egungo kultura eta tradizioen lekua zalantzan jartzen duen eta ondare bizi baten aberastasuna ospatzen duen soinu-murgiltze bat.

🕒 19:00

📍 Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa

👤 Publiko guzia

💰 Dohainik erreserbarekin

💬 Euskaraz
Euskaraz ez dakitenentzat
ulerterraza den musika esperientzia



Musika-tresna tradizionalak eta ahotsa: Juan Mari Beltran
Akordeoa eta ahotsa: Errege Belda
Perkusioak eta ahotsa: Ander Barrenetxea
Ahotsa: Aitor Gabilondoa



abenduaren
04 > 16

EGUBERRI DA ZIBURUN

Egunak laburtu eta negua iristen denean, Ziburuk une bero bat irekitzen du jendartean elkartzeko, partekatzeko eta harritzeko.

Urte amaierako oporrak hurbiltzen direnean, sorkuntza artistikoak inoiz baino gehiago hartzen du protagonismoa adin guzientzako eskaintzak eskainiz. Musika, zirkua, magia eta ikuskizun bisualak markatuko dute garai berezi hau, bidaiatzera, mundu erreala eta irudizkoak esploratzera eta harridurari askatasuna ematera gonbidatuz.



💰 Dohainik erreserbarekin

💬 Frantsesez eta euskaraz

👤 Publiko guzia

📍 Hainbat toki



LASTEREZAGUTZEKO



IKUSKIZUNAK

04 abenduaren ostirala

LA GRANDE OURSE OSCAR FOU KONPAINIA (Vivonne)

La Grande Ourse zerura begiratu eta irudimenaren eremura bidaiatzera gonbidatzen gaituen konstelazio bat da. Babeslea, samurra eta basatia den figura ere bada.

Abesti jostalari eta poetikoen bidez, Oscar Fou-k haurtzaroaren galdera handiak aztertzen ditu, umorez eta leuntasunez: ametsak, beldurrak, besteeiko harremanak, maitasuna eta mundu bizidunarekin dugun lotura. Familiarekin partekatze kontzertua, samurtasuna, fantasia eta poesiaren artean.



@Jiel

🕒 18:00 📍 Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa

👤 5 urtetik aurrera, familientzako kontzertua 💬 Frantsesez

09 abenduaren asteazkena

LÂCHER DE MAGICIEN.NE.S SANS GRAVITÉ KONPAINIA (Tolosa - FR)

Publikoaren artekin ateratzen dira, ilea argiekin apaindurik eta errealitatearen pertzepzioa astintzeko prest. Magia hurbilaren, umorearen eta poesiaren artean, Sans Gravité konpainiako magoek eguneroko espazioak, dena posible den jolas-parke batean bihurtzen dituzte.

Ikuskizun interaktibo eta harrigarria, harritzeko dugun gaitasuna berraurkitzera eta, ukitu arin batekin, zer sinestea aukeratzen dugun zalantzan jartzera gonbidatzen gaituena.



@VirginieRICHARD

🕒 18:00 📍 Pilota plazako karpa

👤 Publiko guzia 💬 Frantsesez

11 abenduaren ostirala

SO LAGUNARTE KONPAINIA (La Bastide-Clairence)



@compagnieLagunarte

Zer gertatuko litzateke paisaiek ahotsa balute? SO ikuskizunarekin, LagunArte konpainiak musika eta zentzumen-esperientzia bat eskaintzen du, non soinuek, ahotsek, materialek eta mugimenduek etengabeko eraldaketan dagoen mundu bat irudikatzen duten.

Mendi, oihan eta ozeanoen artean, gazteak eta helduak bizitzaren bihotzera bidaiatu sentikoro batera gonbidaturik daude, non izakiak eta paisaiak elkarri erantzuten dioten eta elkarrekin eraldatzen diren.

🕒 18:00 📍 Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa

👤 6 hilabetetik aurrerako publiko guzia 💬 Mutua

15 abenduaren asteartea

PP PROJECT LES INVOLTES KONPAINIA (Chirac-Bellevue - Corrèze)

Agure bat bere lantegian bakarrik bizi da, liburu batetik txori bat atera eta bere eguneroko bizitza itzulipurdikatzen duen egunera arte. Orduan, hegan egiten, hazten eta batzuetan askatasuna ematen irakasten duen abentura samur bat hasten da. Begi bistan manipulaturiko txotxongiloak, zuzeneko musika eta hitzik gabeko antzerki esperientzia batekin, PP Projectek espazio bat sortzen du non bakoitzak bere istorioa asmatu eta bere irudimenari askatasuna eman diezaiokeen.

📍 AOIZ Errekoletok - Les Récollets

🕒 19:30 💬 Mutua

👤 6 urtetik aurrerako publiko guzia

Urtero, Eguberriko programazioa arrakastatsua da.

Egitarau hau baldintza onenetan bizi ahal izateko, erreserbak aldi berean irekiko dira **urriaren 30an (larunbata)**, Ziburuko hiriko webgunean.

Gogora ezazu beharrezko sarrerak bakarrik erreserbatzen, ahalik eta jende gehienek une berezi hauetaz elkarrekin goza dezaten.

FRANÇOIS ROSPIDE MEDIATEKA

Irailetik abendurako egitaraua

BELARRITXIKIAK

IPUINAK ETA HAUR-KANTUAK

Libreplume-n eskutik

Elkartu gaitezen mediatekan, ipuin eta haur-kantaz osaturiko esnatze leun bat egiteko! Liburutegia ireki aurretik familiartean partekatzeke une bihotz-bero bat.

- > Irailaren 12a (larunbata)
- > Urriaren 24a (larunbata)
- > Azaroaren 14a (larunbata)
- > Abenduaren 12a (larunbata)

🕒 9:30 - iraupena : 30min

👤 0-4 urte

💶 Dohainik erreserbarekin

🗨️ Frantsesez eta euskaraz

Mediatekako programazioa murriztu egingen da urte amaierara honetan.
Ekitaldi berriak gehituko dira programazioan datozen hilabeteetan.

Non eta noiz aurkitu ahal gaituzu?

Asteartea
15:00-18:00

Ostirala
15:00-19:00

Asteazkena
10:00-13:00
15:00-18:00

Larunbata
10:00-13:00

23 bis François Mitterrand etorbidea
64500 ZIBURU

05 59 47 12 93
mediatheque@mairiedeciboure.com
Facebook /mediatheque.ciboure

KULTURA PARTEKATZEKO

Kultura topaketen, praktikaren eta esperimentazioaren bidez ere bizitzen delako, Ziburuko hiriak esperientzia artistikoa emanaldi edo erakusketez haraindian zabaltzen duten proiektuak garatzen ditu.

Eskoletan hezkuntza artistiko eta kulturalako programak, artistekin topaketak, parte-hartze edo belaunaldien arteko proiektuak: ekimen hauek artelanen, artisten eta bizilagunen arteko zubiak sortzen dituzte, kultura benetako parte-hartze espazio bihurtuz.

HEZKUNTZA ARTISTIKO, KULTURAL, ZIENTIFIKO ETA KIROLEKO PROGRAMAK

Artelaneekin eta artistekin eginiko topaketak denboran zehar eraikitzen direlako, Ziburuko hiriak, bertako eskoletako ikasleei hezkuntza artistiko, kultural, zientifiko eta kiroleko programak eskaintzen dizkie ikasturte osoan zehar. Benetako aurkikuntza bide gisa diseinaturik, programa hauek praktika artistikoa, esperimentazioa eta topaketak konbinatzen dituzte ikasleek haien sentikortasuna, jakin-mina eta munduarekiko ikuspegia garatzeko aukera izan dezaten.

Eguberriko ikuskizunak

Urte amaierako besten kariatara, Ziburuko eskoletako ikasleek Hiriko Eguberria egitarauko hainbat ikuskizun deskubritzen dute. Oscar Fou, LagunArte eta Les Involtes konpainien eskaintzen bidez, istorio, sentsazio eta mundu imajinarioetan zehar bidaiatzera gonbidatzen zaie.

Soinu-paisaiaren bihotzera bidaiatu

LagunArte konpainiaren SO ikuskizunarekin loturik, ikasleek, entzumenaren bitartez, paisaiak esploratzen dituzte. Soinu-esperientzia sentsorialen bidez, izaki bizidunak ingurunearekiko duten lotura modu berri batean deskubritzen dute.

Tradizioen eta sorkuntzen artean: euskal musika eta dantza

Beltran Laukotearen *Euskal Herri Musika eta Soinu-tresnak* kontzertuari jarraipena emanez, programa honek ikasleak euskal instrumentuak, abestiak eta dantzak deskubritzera gonbidatzen ditu, ondare kulturalaren eta adierazpen artistiko garaikidearen artean.

Indar txikiak deskubritzen

Les Vibrantes konpainiaren *Les petites forces* ikuskizunaren inguruan, ama eskolako ikasleek mugimendu, sentsazio eta esperientzia partekatuen mundu bat esploratzen dute. Haien jakin-mina pizteko eta sorkuntza artistikoaren atzean daudena ezagutzeko ibilbide bat.



QR kode hau
eskaneatuz
programa osoa
aurki dezakezu



PARMILLES VACHES

Ikuskizunaren inguruan

Parmi les vaches ikuskizunak memoria, ahanzte eta batzen gaituzten loturak aztertzen dituelako, La Côte Folle antzerki konpainiak zuzendutako tailer batean, bertako adinekoei haien bizitzako istorioak partekatzera gonbidatuko zaie. Elkartruke horietatik eszenatokiko presentzia bat sortuko da, parte-hartzaileak haien istorio eta sentikortasunez aberasturiko emanaldi paregabe bateko konplize bihurtuz. Gisa abentura artistiko honen parte izan nahi al duzu? Jarri zaitez harremanetan Ziburu hiriko Kultur sailarekin.

2027KO BIXINTXOAK APAILATZEN ARI!

Bixintxoko bestak ez dira soilik urtarrelean bizi. Hilabetez hilabete eraikitzen dira, biztanleen asmamena, antzea eta parte hartzeari esker.

Uda honetan, Ziburuko gazteek Eszenografo ikastunak ikastaldian parte hartu dute, hurrengo erakustaldietarako leku irudikapen ibiltariaren elementu berri bat sortzeko. 2027ko urtariletik goiti Bixintxoak eta Añaren mundua aberastuko duen talde-sorkuntza.

Udazkenean, KiLiKA konpainiak ildo horretatik segituko du aisialdi zentroko haurrei eta haien familiei osagarriak eraikitze eta itzal antzerkian trebatzeko tailerrak proposatuz.

Elkarrekin, biharko Bixintxoak asmatzeko hainbat hitzordu.

ZIBURU, SORKUNTZAREN LURRALDEA

Konpainia bati harrera egitea ez da entsegu-espazio baten ateak irekitzea soilik. Artisten, lurraldearen eta bertako biztanleen arteko topaketa baterako baldintzak sortzea da.

Egonaldi luzeagoak garatuz, Ziburuko hiriak sormen-prozesua babesteko eta lanak lurraldearekin kontaktuan garatzeko duen konpromisoa berresten du. Topaketak, tailerrak eta bizilagunekin eta eskoletako ikasleekin harremanak: une berezi hauek sorkuntzaren atzean dagoena ikusteko aukera ematen dute eta esperientzia artistiko partekatuak sortzen dituzte.



@luciapalli

LES PETITES FORCES

LES VIBRANTES KONPAINIA (Biscarosse)

Les Vibrantes konpainia Ziburun egonen da Les petites forces ikuskizunean oinarrituriko sormen egonaldi baterako. Haur txikientzako ekoizpen bat da, gorputzaren, mugimenduaren eta sentsazioen bidez, mundua haur baten goratasunetik aztertzen duena. Egonaldi artistiko honek Ziburuko biztanle gazteenekin harremanetan jartzeko aukera ere emanen du, ama eskolako hurrei eskaintzen zaien arte eta kultura hezkuntza programa baten bidez. Sorkuntzaren atzean dauden alderdiak ezagutzera gonbidatuko zaie, jolasaren, esperimentazioaren eta artistekin topaketan bitartez.

Sormen egonaldia

2026ko abuztuaren 31tik irailaren 9ra

LE TOC THÉÂTRE

ZIBURUN

PRESENTZIA ARTISTIKO LUZEA (Arroxela)

2027tik aurrera, Ziburuk Le TOC Théâtre konpainia errezibituko du bere hurrengo ekoizpenean oinarrituriko egonaldi luze baterako. Proiektu honek bizilagunei sormen prozesua hasierako urratsetatik jarraitzeko aukera emanen die.

Konpainiaren presentziak lurraldean topaketa eta transmisio aukerak eskainiko ditu: objektuen antzerkian oinarrituriko arte eta kultura hezkuntza programa bat tokiko eskolentzat, eta baita Itsasoko Lizeoko ikasleentzako programa bat ere, unibertsoaren eta konpainiaren galdeketeekin loturik.

Aldi berean, Le TOC Théâtre-k bere errepertorioko Minus eta À la criée ikuskizunak aurkeztuko ditu eskola eta jendaurreko emanaldietan.

Aukera paregabea izanen da ikasleentzat eta bizilagunentzat konpainiaren mundu berezia ezagutzeko, non objektuen antzerkia istorio intimoak, lurraldeko istorioak eta giza errealitateak kontatzeko hizkuntza sentikor bihurtzen den.

Prestatzen

2027



SE RENDRE AUX ÉVÉNEMENTS CULTURELS DE CIBOURE



• Bizikleta bidea



• Ziburutik igarotzen diren autobus lineak:

- 4 Hendaia hondartza nagusia - Donibane Lohizuneko autobus-geltokia
- 16 Donibane Lohizuneko Lafiteneko hondartza - Ziburu-Zokoko hondartza
- 17 Donibane Lohizuneko Alturan - Ziburuko Zaldi Xurito
- 26 Hendaia Laranjondo karrika - Donibane Lohizuneko autobus-geltokia



• Oharra:
Ikuskizun ezberdinetara etortzeko autoa partekatu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizitza Sailarekin, beste ikusleekin harremanetan jar zaitzaten.

Guy Poulou erabilera anitzeko gela

Kirol Zelaia

A63

Xurito parkea

INFORMAZIO PRAKTIKOAK

ETA ERRESERBAK

NOLA EGIN ERRESERBA?

Egin erreserba zuzenean Kultura, Ondarea eta Elkartea Bizitza sailean

- > telefonoz
 - > posta elektronikoz
 - > linean:
- [www. www.billetterie-ciboure.mapado.com](http://www.billetterie-ciboure.mapado.com)

PUBLIKOAREN HARRERA

Kontuan izan, eserlekuak ez daude zenbakiturik (eserleku libreak)



NON ETA NOIZ AURKITU KULTURA, ONDAREA ETA ELKARTE BIZITZA SAILA?

Astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan, 8:15etatik 12:00etara

Camille Jullian plaza
Denak Batean eraikina – 2. solairua
64500 ZIBURU

06 10 75 45 61
animations@mairiedeciboure.com
cultureciboure
© ciboure_ziburu

Zuk edo zure seme-alabak Ziburuko Hiriak antolaturiko ekitaldi batean parte hartzen duzue. Testuinguru horretan, argazkiak edo bideoak egin daitezke ekitaldi hau ilustratzeko eta sustatzeko. Hiriaren argitalpenetan argitaratu ahal izanen dira, bai paperean (aldizkaria, liburuxka, eskuorria, gida, etab.) bai digitalean (webgunea, sare sozialak, etab.), eta tokiko komunikabideekin partekatu ahal izanen dira (Sud-Ouest, etab.). Argazki edo bideo hauetan agertu nahi ez baduzu, jakinarazi iezaiozu mesedez tokian dagoen antolatzaileetako bati.

Inprimaketa egunean inkituriko egitaraua. Ekitaldi batzuk gehituak edo aldatuak izan daitezke. Egitarau eguneratua linean aurkituko duzu.